

MUGARRIAK

Oso garrantzi aundikoak izan dira eta dira, gurean mugarriak.

Leen ibarren arteko mugarriak ikusten ziran bakarrik. Or doguz lekuko zenbait jentillarri geure mendi gurenetan, iru ta lau metroko arri itzelak.

Gerora, artzaiñen kortabasoak nekazaritzako baserri biurtu ta mugarriak ipiñi eutsoezan inguruetan, ikatz eta tella-zatien gaiñetan, jabe barriaren ezaugarritzat.

Baserriok auzoak eratu, ta auzoak erriak... laster agertu ziran mugarri barriak erri baktxaren lurralde inguruetan.

Mugarriak azi, eztabaidak asi... sekulako auzi ta burrukak sortu oi ziran geure bazterretan.

Ba da ipiun bat geure errutan orretari buruz:

“Auzilari bat il ei zan erri baten. Eta gauero-gauero agertzen ei zan, berak inoz ostutako mugarria eskuetan eta su-bola aundiz inguraturik, deadar-ka: non sar..., non sar...”

“Alango gau baten, auzokoak erantzun ei uto: sar egik, artu dokan lekuen.

“Eta ez ei zan geroztik agertu...”

Mugarrien ikusketak egiten ziran leen, erri guztietan. Eta oraindik bere egein dira erri batzuetan.

Pazko inguruko egunetan izaten ziran.

Erri osoak artzen eban parte, eta elizako abadeak eta udaletxeko egin-tariak burutzen eban ibillaldia.

Erri guztiari bira emon bear yakon mendiz mendi, eta egun osoko txango luzea eban. Orregaitik euren maleta-txokar yoiazan danak, eta basoan egiten eban euren bazkaria, udaletxeak ar-tarako ekarritako zaragi ardaoaz ondo bustita.

Erresponso bana esaten eban ildakoen gurutze aurretan; Ebanjelioak irakurtzen, mugarri baktxaren ondoan; inguruko baso ta landak bedeinkatzen; eta elizkizun zurrean, supanpa ta txapliguak lertzen.

Arratsaldean biurtzen ziran errira. An egozan ordurako zain, erriko sarre-ran, basora joan ezin al izan eban guztiak.

Eta danok bat egiñik, Letaniak kantetan joaten ziran elizaraiño.

Ez zan emen dana amaitzen. Jai egiten eban gero, illuntzeraiño. Zezenak bere izaten ziran erri batzuetan.

Leen esan dodanez, erri askotan galdu da oitura eder au.

Zer dala-ta..?

Ona emen, arrazoi bat. Udaletxeak emondako ardotik, batzuk larregi edan bai, eta lotsabagakeritan asten ziran.

Ori zala-ta, eztabaidak sortu oi ziran abade ta udaletxekoen artean. Eztabaidak batzuetan konpondu oi ziran; eta bestetzueta, ez. Eta apur-apurka oitura galduz joan zan erri askotan.